

Baserriko ogia, artisau ogia



AITOR SASIAIN

■ Juanita Olañeta Ertzil baserriko andrea, labe-etxean, berak egindako ogiak atzean dituela.

Makina bat esku aritzen da, gauero-gauero, ogia egiten; gehientsuenek makina handiak izaten dituzte lagun orea egiteko, eta labe modernoak orea erretzeko. Alabaina, badira teknologia berriak bazter utzi, eta ogia arbasoei ikasitako moduan egiten dutenak ere. Barinagako (Markina-Xemein) Ertzil baserriko Juanita Olañetak, esaterako, etxean egiten du ogia, makinarik gabe, eskuz, joan deneko 67 urteetan egin duen modu berean —88 urte beteko ditu azaroan—. Iragan larunbatean, Ertzilen izan zen EGUNKARIA, ogia egiteko prozesua bertatik bertara jarraitzen.

Zapatu goizetan egin ohi du Juanitak ogia, «horretarako gogoz sentitzen denetan», nabarmendu digu. Ogia egitea ez dela lana dio, eta gustura egiten duela, batez ere ingurukoek esker onez hartzen dutelako. Egun, etxekoentzat soilik egiten du ogia, baina gogoan ditu egunsentiaz batera jaiki, eta goiz osoa ogia egiten ematen zitueneko egunak ere. «Gonbidapenak egiten zirenean, esate bate-

Arbasoei ikasitako eran egiten dute ogia Barinagako Ertzil baserrian, eskuz, makinen beharrik barik

rako, hogeitaka ogi egiten nituen; urte askoan, gainera, saltzeko ere egin izan ditut. Eibar-ko bezero batzuk nituen, eta larunbatero-larunbatero egiten nuen ogia, hutsik egin barik. Etxean, berriz, larunbatetan egiten nuen ogiarekin egiten genuen asterakoa. Orain, alabek eta semeak ere ekartzen dute kaleko ogia, baina nik nahiago dut etxekoa», adierazi digu.

Ogia egiteko modua aldatu ez badu ere, garai batetik hona, gauzak dezente aldatu direla zehaztu digu Juanitak, horren harira. Oromahai ondoan —orea egiteko erabiltzen duen egurrezko kutxa modukoa—, ogia egiteko osagai guztiak prestatzen ziharduela, gerra denborako kontuez hitz egin digu, soseguz, baina berea egiteari utzi barik. «Zenbat aldatu diren gauzak! Begiratu horra zelako irin zakuak dauden. Lega-

mia ere hortxe, nahi beste. Orain ogirik behar ez, eta osagaiak soberan. Lehen, lau orduko bidea izaten nuen Markinako Okoki lantegira, asto gainera, etxean jasotako garia eraman eta etxera irina ekartzeko. Gerra denboran, gainera, hura ere itxi egin zuten, eta, orduan, Barinagako Armixtegi erroten eskuratzen genuen ogi gutxi batzuetarako adina irin, isilpean, ezagun baten bitartez, gauez lan eginda», ekarri digu gogora.

Juanita Olañeta

«Alabek eta semeak ere ekartzen dute kaleko ogia, baina nik nahiago dut etxekoa»

Oromahai garbi-garbi egin, eta pitxer moduko batekin irinez bete du ertz bat. «Zazpi bat ogi eta opil pare batekin nahikoa izango al dugu?». Ondoren, hozkailuan izan duen legamia txiki-txiki egin, eta irinari gehitu dio. Urteetan gogotik lan egindakoaren esku zimurtuek bultzatza eta bultzatza jardun dute legamia eta irina nahasten. Ondoren, beste tartetxo bat hartu du gurekin hitz egiteko, eta atzera begira jarri gaitu berriz. «Hemen, inguruko baserri guztietan egiten zuten lehen ogia, etxean bildutako irinarekin. Baserri gehienetan, astean behin egiten genuen ogia, aste guztirako adina. Baziren, baina, hamabost egunetarako ogia bi astean behin egiten zutenak ere», zehaztu digu.

Ura berotu eta oromahai ertzean pilatutakoari botatzen hasi da gero, apurka-apurka, beste eskuarekin nahasten jarraitzen

duen bitartean. Gatza ere bota dio gero. Orea egindakoan, manta batekin estali du, eta horren azalpenak eman dizkigu: «Orain lo egin behar du. Hazi egin behar du oreak, harrotu. Horretarako, ordu erdi inguruz izango dugu hemen mantarekin estalita. Ondoren, zatiak egin, eta forma emango diogu. Bien bitartean, baina, labea zertan den ikustea komeni zaigu»

Suhiak piztu dio sua, goizean goiz. «Egur lehorra hartuta pizten da sua. Su horrek labea garbitzeko balio du. Ondoren, geratzen diren hondakinak albo batera egin, eta ogia erretzeko prest gelditzen da», zehaztu digu hark.

Esandako ordu erdia pasatu ostean, labana hartu eta orea zatitzeari ekin dio Juanitak. «Ogi guztiak antzeko tamainakoak egin ahal izateko pisatu egiten ditut. Gutxi gorabehera kilo eta erdikoak egiten ditut»,